

KOSTUEN EGITURA

Osasun mentaleko klinika bat martxan jartzeak gastu batzuk eskatzen ditu, eta enpresak gastu horiek estaltzeko gai izan behar du.

KOSTU EGITURA GARRANTZITSUENAK:

Gure proiektuko kostu-egiturek honako ezaugarri hauek izan ditzakete:

Kostu Finkoak ere kontuan edukiko ditugu...

- Klinikaren lokalaren alokairua.
- Langileen soldatak (psikologoak, psikiatrak, administratiboak, etab.).
- Instalazioen mantentze-lanak eta garbiketa.
- Lan-ekipamenduak (altzariak, ordenagailuak, software espezializatua).
- Lizentzia eta aseguru gastuak.

Kostu Aldakorrak ere kontuan edukiko digun...

- Bulegoko materiala (papera, boligrafoak, inprimaketak).
- Material terapeutikoen gastuak (testak, terapia tresnak).
- Marketina eta publizitatea, eskaeraren arabera aldatu daitezkeenak.
- Elektrizitatea eta beste hornidurak, hilabeteko erabileraren arabera.

ESKALA EKONOMIAK:

Paziente kopurua handitzen den heinean kostu unitarioak murriztea (horniduren prezioak bolumen handian negoziatzea).

Zerbitzu sorta zabala eskaintzea (aholkularitza psikologikoa, mindfulness tailerrak, talde terapia), espazioa eta langileak zerbitzu desberdinetarako optimizatuz.

Ebaluazio batzordeak baloratuko duena:

Proiektuaren kostu guztiak argi eta garbi zehaztea (finkoak, aldakorrak, zuzenak, zeharkakoak, ekonomikoak, sozialak eta ingurumenekoak).

Hasierako inbertsioen kostu osoaren estimazioa, proiektuak hasieran inbertsio handia behar badu (adibidez, lokala egokitzea edo ekipamendu espezializatua erostea).

Adibide Praktikoa: Lauaxeta Klinika

Kostu Finkoak:

Momentuz, alokairua eta oinarrizko altzariak bakarrik estaltzen dituzte, hasierako aurrekontuaren arabera lokala egokituz eta gastuak murrizteko ordenagailu propioak erabiliz.

Kostu Aldakorrak:

Material terapeutikoak pazienteen eskaeraren eta beharrezko tratamendu motaren arabera eskuratzen dira (adibidez, test psikologikoak eta beste material espezifiko batzuk).

Eskema honek dokumentuaren eredua jarraitzen du eta osasun mentaleko klinika baten beharretara egokitzen da.